## FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua aurrera eraman ahal izateko eta balio-proposamena sortzeko, ezinbestekoa zaigu zenbait jarduera betetzea. Leasing-enpresarekin harremanetan jartzeak lehentasuna du, guztiaren gainetik. Izan ere, Leasing-enpresa da gure hornitzaile nagusia (makinak eraikitzea berari dagokiolako). Bestalde hurrengoko pausoa (garrantzi handikoa hau ere), gure makinak ezagutaraztea da. Makina alokatuko dituztenek zein kontsumitzaileek gure makinaren berri izan behar dute. Horrexegatik, gure makinaren aurkezpenak eta applikazio zen webgunearen eraketa ezinbestekoak dira. Baina hori guztia lortzen badugu ere, gure makinak biltegian jarraitzen badute, ez dugu ezer lortuko. Horregatik funtsezkoa da Lantegi Batuen partaidetza, garraioaz arduratuko baita.

**ENPRESAREN ORGANIGRAMA:**



